

UDAL BAIMENAK ETA LIZENTZIAK: herritarrentzako erantzunak

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Azaroak 8 eta 15	IKASGELA/ TOKIA	A3 gela. IVAP Errekalde zumarkalea, 18 Bilbo.
IRAUPENA	8 ordu	ORDUTEGIA	09:00-13:00
MATRIKULA EPEA	Urriaren 23ra arte	ONIRITZI EPEA	Urriaren 30era arte
IKASLE KOPURUA	20 gehienez ere	HARTZAILEAK	Herritarrentzako erantzunak idazten dituzten langile publikoak
IRAKASLEA	Juan Luis Bidarte	MATERIALA	Ikastaroan bertan banatuko da
DISEINUA	EMUN	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK Langileek herritarrek eskatutako udal baimen zein lizentziei erantzun egoki eta argia emateko hainbat baliabidez jabetzea. Herritarrei erantzun koherente, egoki eta zuzenak ematen ikastea

- Administrazio-idazkietarako irizpideez jabetu:

HELBURU ZEHATZAK

- Eraginkortasuna
- Jarrera baikorra
- Informazioaren antolaketa
- Tratamendua
- Hizkera ez-sexista
- Baliabide tipografikoak
- Eskabideen egitura aztertu
- Lexikoa landu
 - Administrazio prozeduren hiztegia
 - Administrazio termino batzuen definizioa

GAITASUNAK

- Komunikazio egoera bakoitzean egokiena den hizkuntz-aldiera aukeratzea
- Idatzizko testua sortzeko oinarrizko baldintzak ezagutzea
- Gramatikaren ezagutza praktikoa



UDAL BAIMENAK ETA LIZENTZIAK: herritarrentzako erantzunak

- Testuinguruaren arabera, erabaki egokiak hartzen jakitea
- Adierazi nahi den arrazoi edo argudioa era ulergarrian adierazteko gai izatea

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA	Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da. Komunikazioa izango du ardatz, eta ikasleen benetako lan-jarduna izango da abiapuntua. Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak izango duen lehenetsia. Azalpen teorikoak emango dira eta hauen bidez baliabide eta estrategia egokiak eskainiko dira unean uneko arazoei aurre egin ahal izateko. Testu eredu onak ardatz harturik hauen lanketaren bidez era honetako testuak arrakastaz sortzeko estrategiak eskainiko dira
BAJA EMATEKO EPEMUGA	Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna
PROGRAMA	Testu-genero bakoitzaren ezaugarriak landu eta ikasle bakoitzaren errealitateara egokitzea. Testu-genero bakoitzaren eduki gramatikalak landuko dira. Era berean, kohesio formak, egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuko dira
EBALUAKETA	Fitxa baten bidez, helburuen betetze-maila neurtzeko adierazle zehatzak ezarriko dira. Hiru ebaluazio-mota egingo dira: - Hasierakoa: diagnostia egiteko eta ikasleen abiapuntua ezagutzeko. Diagnostika hauen arabera ezinbestekoak diren planteamendu aldaketak egingo dira. - Jarraitua: idatzizko ekoizpenak, horiek sortzeko prozesua eta ikasleen jarrera hartuko dira kontuan. - Amaierakoa: azken proba, non ikasleek landutakoa erabiliko duten proba erreal batean
IKASTAROAREN BALORAZIOA	- Ikasleek gogobetetze.-inkestak osatuko dute - Irakasleek balorazio inkesta beteko du
ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA	% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.
PREZIOA	114 € AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduerak eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zka)